



IKASLEENTZAKO OINARRIZKO ARAUAK

MENDATA BHI

AURKIBIDEA

1. OINARRIZKO ARAUAK	2
2. JOLAS-ORDUETARAKO ARAUAK	2
3. FALTA ARINEN, LARRIEN ETA OSO LARRIEN ONDORIOAK	3
3.1. Jokabide desegokien ondorioak:	3
3.2. Bizikidetzaren aurkako jokabideen ondorioak:	3
3.3. Bizikidetzari kalte larria eragiten dizkioten jokabideen ondorioak:	3

1. OINARRIZKO ARAUAK

- a. **Ikastetxeko pertsona guztiak** (ikaskideak, irakasleak eta irakasleak ez diren langileak, jangelako langileak zein begiraleak ...) **errespetuz tratatu** behar dituzu. Era guztietako errespetu-faltak (irainak, erasoak, burlak ...) erabat debekatuta daude.
- b. **Ikastetxeko zein jangelako eta ikaskideen materiala eta instalazioak** (gelak, komunak, patioa, atea, hormak, leihoak, mahaia, aulkiak, arbelak, apalak ...) **behar den bezala erabili eta zaindu** behar dira. Gogoratu era desegokian edo zakarrean erabiltzeagatik materialean eragindako hondaketak eta nahita sortutako kalteak zeuk konpondu edo ordaindu egin beharko dituzula. **Nor izan den jakin ezean, gela edo gune horren erabiltzaile guztiek ordainduko dute.**
- c. Justifikatu gabeko hutsegitea jokabide desegokitzat joko da. **Klasera, jangelara edo irteerara ez etortzea beti justifikatu** behar da.
 - Klasera itzultzen zaren egunean justifikapen orria beteta eta gurasoek sinatuta eman behar diozu zeure tutoreari.
- d. **Telefono mugikorrek eta musika entzuteko zein grabazio baliabideak dituzten aparatuak erabiltzea debekatuta** dago. Irakasleak edota jangelako begiraleak ikusiz gero, dena delako tresna kendu egingo dizu eta gurasoek etorri beharko dute ikastetxera bere bila.
- e. **Klaseetara zein jangelara beti garaiz heldu** behar duzu.
- f. **Fotokopiak ateratzeko edota zerbait inprimatzeko dagokion irakaslearen baimena behar duzu.**
- g. **Ikastetxeko eremutik ezin duzu irten** irakaslearen, begiralearen edo gurasoen baimenik gabe.
- h. Ikastetxeko eremu osoan **ezin da erre.**

2. JOLAS-ORDUETARAKO ARAUAK

- a. Ateri badago, patiora edo liburutegira joan zaitezke. Pasilloan eta eskaileretan ezin zara egon eta komunera jolastordu hasieran edo bukaeran joan behar duzu.
- b. Euria egiten badu, zeure gelan gera zaitezke, betiere lanean aritzekotan edo lasai egotekotan. Gelan ezin zara korrika eta builaka ibili.

- c. **Jolas-ordurako beharrezko materiala atezaintzan jolas-orduaren hasieran eskatu** behar duzu eta jolas-ordua amaitutakoan itzuli. **Gelan ezin da baloirik eduki.**
- d. Baloiak patiotik kanpora alde eginez gero, zaintzan dagoen irakaslearengana jo behar duzu. Honek irekiko dizu patioko atea baloiaren bila joateko

3. FALTA ARINEN, LARRIEN ETA OSO LARRIEN ONDORIOAK

Jokabide desegokiak (=falta arinak), bizikidetzaren aurkakoak (=falta larriak) eta bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak (=falta oso larriak) edukitzeak ondorio hauek dauzka:

3.1. Jokabide desegokiaren ondorioak:

- Jokabide desegokiagatik irakasleren batek idatzizko ohartarazpena (I. ERANSKINA) eman badizu, etxera eraman eta zure gurasoek sinatu beharko dute. **Hurrengo egunean, derrigorrez, eranskina jarri dizun irakasleari ekarri behar diozu.**
- **Ezinbestekoa da irakasleak ezarritako neurri zuzentzailea betetzea:** izan duzun jokabide desegokiarekin zerikusia duen zereginen bat egitea, atsedenaldirik gabe geratzea, Zuzendaritzatik pasaraztea ...

3.2. Bizikidetzaren aurkako jokabideen ondorioak:

- Bizikidetzaren kontrako jokabideagatik prozedura zuzentzailea hasi izanaren jakinarazpena eramango duzu etxera (II. ERANSKINA) eta zure gurasoek zuzendariarekin hitz egitera etorri beharko dute.
- Zure jokabidea zuzentzeko jarriko zaizkizun neurriak bete beharko dituzu, esaterako: lan hezitzaileak egitea, ikasgelatik aldi baterako ateratzea, aldi baterako eskoletara joateko eskubidea edo jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko eskubidea etetea ...

3.3. Bizikidetzari kalte larria eragiten dizkieten jokabideen ondorioak:

- Izandako jokabidea zuzentzeko prozedura aurreko kasuaren antzekoa da, baina ezarriko zaizkizun neurri zuzentzaileak, falta oso larria denez, gogorragoak izango lirateke.